

FROILAN ELESPE FUNDAZIOA

Egun on,

Harriduraz hartu genuen **Froilan Elespe VII. Saria** guri emateko proposamena helarazi zenigutenean, izan ere, ez genuen uste gure lanak horrelako zabalkundea izan zuenik herrian sari hau jasotzeko adina, baina oso pozik eta eskertuak gaude. **Are eta gehiago jakinda errekonozimendu hau Tomasi, Josu eta Andoniren eskutik zettorrela**, gure bizilaguna zen Froilan Elesperen etxeok, Lasarte-Oriako azken biktima, beraz, bihotzez onartzen dugu; hemen egon behar genuen.

Lasarte-Oriako Bizikidetza Taldea hamar bizilagun inguruk osatzen dugu eta **2014ko urrian sortu zen ezberdinen arteko elkarrizketa espazio bat** finkatzeko ideiarekin, **biolentziak gure herrian utzitako zaurien** inguruan **zintzo** hitz egiteko eta **errespetuz** entzuteko, helburu komun batekin, **zauri hauek itxi** eta **elkarbizitza berreraiki** oinarri sendo eta partekatu batzuen gainean.

Gure herrian dagoen **dibertsitatea** onartuz eta errespetatuz, gure **bizikidetza berreraikitze**ko erabilgarriak zitzaizkigun hainbat **balio komunak zehaztuz** hasi ginen, baita ere gure **auzo erlazioa** sendotu eta **garai kritiko bat gainditu**. **BIZIKIDETZARAKO AKORDIO ETIKOA** argitaratu genuen, **Giza Eskubideetan** oinarrituta dagoena, gure **ekintzetarako gida** moduan. Hortik aurrera, auzokideen arteko **elkarbizitza hobe** baten **alde** gure **ekimenak partekatzea** erabaki genuen, **erreferentzi** gisa, Lasarte-Oriako Udalak argitaratutako **Memoria partekatu baterantz** hartuz, bertan jasotzen dira gure herrian izandako **indarkeria-ekintzak**.

Gertutasuneko eta **auzotasuneko** ikuspegia hartu dugu, gure desioak, ametsak eta gaitasunak **elkarbizitzaren alde** sustatzen ahalegintzeko, modu dinamikoan jardunez eta partekatutako helburu eta ikuspuntuak sortuz.

Lasarte-Oriara hain lotua dagoen **Euskaltzaindiko lehendakari** izan zen **Manuel Lekuona** hizkuntzalaria eta idazleak, honako atsotitz herrikoia jaso zuen: **Senidea baiño auzoa beiñago**. Eta gure taldeko kide batek honako beste bi: *Hobe gertuko auzokidea urrutiko senidea baino* eta *Zein da zure familia? Auzokide on bat!*. Bai, auzotasuna gizarte bizitzako parametro erabakigarri bat da, **herritartasuna, abizena, maila** edo eta **ideologiaren** gainera dagoena.

Auzotasuna eguneroko erlazioetan dago, proiektu komunak **partekatuz** etxe-atarian, kalean eta auzoan. Gure auzokide guztiekin konprometitzeko betebeharra dugu eta auzokide baten giza duintasuna urratzen duenak, gu guztiona urratzen duela ulertzekoa ere bai. Gure **ezberdintasunak pro-aktibitate**tik eta **kolaborazio**etik heldzea elkarren arteko konfiantza sortzen digu, eta hori da **bermerik** onena **elkarbizitza iraunkor** baterako.

Bukatu berri ditugu biktimen senideekin bilerak, beraien artean Josu, eta guretzako oso hunkigarriak izan dira, famili guztiek baitzuten min berbera, tristura berbera, ezintasun berbera bizi behar izan zutenaren aurrean. Baina famili bakar bat ere ez da bizi gorrotoarekin, ezta mendeku sentimenduekin ere, eta hori **mirestekoa** da. Etorkizunean beraien mailan izatea espero dugu.

Mila esker eta besarkada bat